



Zer da es-eu itzultzaile automatikoa?

Ordenagailu programa bat da, gaztelaniatik euskarara testu orokor ez-espezializatuak itzultzen laguntzen duena. Itzulpen automatikoko beste edozein sistema bezala, laguntza tresna da eta ezin du inolaz ere giza itzultzailea ordezkatu.

Nola funtzionatzen du?

Itzultzaile automatikoak gramatika eta lexiko konputazionalak erabiltzen ditu, itzuli nahi den testuaren esaldi bakoitzaren azterketa morfosintaktikoa egiteko, programak hitz bakoitzarentzat itzulpen egokiena aukeratzeko eta, azkenik, esaldia euskaraz emateko.

Zer nolako emaitzak ditu?

Kontuan izan behar da itzulpen automatikoko programa batek ez duela ulertzen itzultzen ari dena – gizakiak egiten duen moduan – eta egiten duena dela esaldien itzulpen “mekanikoa”. Askotan, euskarazko itzulpena zuzena izango da, edo ia zuzena, estilo kontuak alde batera utzita; beste batzuetan, oster, euskarara egindako itzulpena zati batean bakarrik izango da zuzena, baina edozein kasutan laguntza handia emango dio erabiltzaileari.

Beharrezkoa al da makinak ematen duen itzulpena gainbegiratzea eta zuzentzea?

Bai, beti. Horregatik guztiagatik, oso litekeena da itzultzaile automatikoak euskaratutako testuek akatsak izatea. Esan bezala, laguntza tresna bat baino ez da eta halakotzat erabili behar da. Beraz, **behar-beharrezkoa da** kontuan izatea, itzultzaile automatikoak euskarara emandako itzulpena erabili nahi bada aurkeztu edo argitaratu nahi den dokumentu edo testuren batean sartzeko, ezinbestekoa dela itzulpen hori **pertsona batek alde aurretik gainbegiratzea eta zuzentzea**. Denboraz, sistema hobetzen joango da, egindako akatsetatik abiatuta hobekuntzak etengabe sartuko direlako.

Zer da garrantzitsua itzultzaile automatikoa erabiltzeko orduan?

Ahalik eta euskarazko itzulpen zuzenena lortzeko **oso garrantzitsua da** gaztelaniazko testua ondo idatzita egotea: akats ortografikorik gabe, azentuak zuzen ezarrita eta puntuazio-markak egoki erabiltza; gainera, sintaxia zuzena eta, ahal dela, ez oso konplexua, izan behar da. Bestalde, erabiltzaileak “erakutsi aukerak” laukitxoa marka dezake, sistemak zenbait hitz itzultzeko dituen aukerak ikusteko. Adibidez, itzultzaile automatikoak “El tiempo ha sido bueno” esaldia itzultzeko, “erakutsi aukerak” laukitxoa markatu gabe, “Denbora ona izan da” emango du; baina laukitxoa markatuta, “**Denbora/Eguraldia** ona izan da” itzuliko du.

Norentzat da tresna hau?

Testu laburrak eta orokorrak euskaraz idatzi behar dituen edonorentzat.

Testuez gain, webguneak ere itzultzen ditu, ezta?


Bai, aplikazioan euskaraz ikusi nahi den webgunearen URL helbidea jarritz, euskaraz nabigatu daiteke webgune horretan.

www.itzultzailea.euskadi.net

Adibideak

Testu baten itzulpena

Webgune baten itzulpena



Argitaraldia-Edición: 2012 otsaila-febrero 2012 / Argitaratzailea-Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia-Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco / Inprimaketa-Impresión: XXX / L.G.-D.L.: V/84-2012

En euskera,

EN UN CLICK



TRADUCTOR AUTOMÁTICO
HERRAMIENTA DE AYUDA
PARA TRADUCIR DEL
CASTELLANO AL EUSKERA

www.itzultzailea.euskadi.net



¿Qué es el traductor automático es-eu?

Es un programa informático que ayuda a traducir textos no especializados de castellano a euskera. Como cualquier otro sistema de traducción automática es una herramienta de ayuda y, en ningún caso, puede sustituir a un traductor humano.

¿Cómo funciona?

El traductor automático utiliza gramáticas y léxicos computacionales para efectuar un análisis morfosintáctico de cada frase del texto que se quiere traducir, para escoger la traducción que el programa considera más adecuada para cada palabra y para generar finalmente la frase traducida al euskera.

¿Cuál es el resultado de la traducción?

Hay que tener en cuenta que un programa de traducción automática no entiende lo que está traduciendo – de la forma en que lo hace un humano – y lo que lleva a cabo es una traducción “mecánica” de las frases. En muchos casos la traducción al euskera será correcta o casi correcta, dejando aparte cuestiones de estilo. En otros casos, la traducción al euskera será sólo parcialmente correcta, pero, en todo caso, siempre resultará de gran ayuda para el usuario.

¿Es necesario revisar y corregir la traducción que da la máquina?

Sí, siempre. Como se ha dicho antes, es muy posible que las traducciones al euskera dadas por el traductor automático puedan contener errores. Se trata sólo de una herramienta de ayuda y como tal hay que utilizarla. En consecuencia, es **esencial** tener en cuenta que si se quiere utilizar la traducción al euskera dada por el traductor automático para incluirla en algún documento o texto que se deba presentar o publicar, es **imprescindible que un corrector humano revise y corrija previamente esta traducción**. Con el tiempo, el sistema irá mejorando puesto que, a partir de los errores, se irán integrando correcciones continuamente.

¿Qué es importante a la hora de utilizar el traductor automático?

Para conseguir una traducción al euskera lo más correcta posible es muy importante que el texto en castellano esté bien escrito: sin errores ortográficos, con los acentos correctamente puestos y con los signos de puntuación adecuadamente utilizados; además, la sintaxis debe ser correcta y, a ser posible, no demasiado compleja. Por otra parte, el usuario puede marcar la casilla de “mostrar alternativas” para ver las diferentes alternativas de traducción que el sistema pueda dar para algunas palabras. Por ejemplo, la traducción que da el traductor automático para la frase “El tiempo ha sido bueno” con la casilla de “mostrar alternativas” desmarcada es “Denbora ona izan da”, mientras que marcando esta casilla, la traducción resultante es “Denbora|Eguraldia ona izan da”.

¿A quién está destinada esta herramienta?

A cualquier persona que necesite escribir un texto corto y general en euskera.

Además de textos, ¿también traduce sitios web, no?

Sí, poniendo en la aplicación la dirección URL del sitio web que se quiere traducir a euskera, se puede navegar en euskera dentro de ese sitio web.



www.itzultzailea.euskadi.net

Ejemplos



Traducción de un sitio web



Euskaraz,
KLIK
BATEAN
es-eu
ITZULTZAILE
AUTOMATIKOA
GAZTELANIATIK
EUSKARARA ITZULTZEKO
LAGUNTZA-TRESNA

www.itzultzailea.euskadi.net

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizuntza Politikarako Saiburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística